juneren hegoak

GAIXOTASUNA DUTEN NESKA-MUTILEI ETA HAIEN
FAMILIEI LAGUNTZEKO ELKARTEA

www.junerenhegoak.org
www.lasalasdejune.org

MEMORIA 2025

FAMILIEI EKINTZA TXIKI GUZTIETAN LAGUNTZEA

Euskal Herriko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta
AS/G/17785/2013

Eusko Jaurlaritzak 2020ko martxoaren 10ean Onura Publiko izendatu zuen GKEak

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta

G75091728 CIF

junerenhegoak.org
lasalasdejune.org
info@junerenhegoak.org
bulegoa@junerenhegoak.org

688 962 111
Martin Etxeberria 15-bajo, 20100
Errenteria, Gipuzkoa

AURKIBIDEA

SARRERA

EREMUAK

FAMILIAK 5
EKITALDIAK 9
KOMUNIKAZIOA 15
ELKARREKIN 17
BOLUNTARIOTASUNA 21
ADMINISTRAZIOA 23
PLAGINTZA ETA ANTOLAKETA 25

ESKERRIK ASKO 27

\+ guri buruzko informazio gehiago: Gure misioa, helburuak, egitura, arloak,...

Memorian aurkeztutako datuak 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak dira, hau da, gure kontu-ekitaldiari dagozkionak. Laguntzen diguten pertsonen eskuzabaltasunari esker lortutako lorpenak nabarmendu nahi ditugu.

\+ informazio zehatza nahi baduzu, kontsultatu gure GARDENTASUNA atala gure webgunean: www.junerenhegoak.org

12 URTE FAMILIAK LAGUNTZEN

Imajinatu muturreko ahultasun-egoeran zaudela: dirua lortzeko borrokan ari zara, hizkuntza-oztopoak jasaten dituzu, lan ziurgabetasuna eta bakardadeak bidelagun dituzu, eta inguruan seniderik gabe laguntzeko. Gainera, zure seme edo alabetako batek zer den ez dakizun gaixotasun bati aurre egiten dio, edo aniztasun funtzionala duena, zure arreta eta denbora guztia eskatzen duena.
Edo are okerrago, zure semea edo alaba hil dela eta ekaitz batean murgilduta zaudela.

Zailtasun eta min une hauen erdian, Juneren Hegoak itxaropen eta elkartasun-itsasargi bihurtzen da, bere hegoak zabalduz une gogor hauetan familiei laguntza eta babesa eskaintzeko.

Memoria honetan 2025an bizitakoa partekatzen dugu: esperientziak, lorpenak eta erronkak, gure lanaren benetako eragina familien bizitzetan islatzen dutenak.

Hemen uzten dizuegu urtean zehar egindako guztia, baina batez ere, gure bihotzak pozik daude, beste urte batez gure familiak lagundu ahal izan ditugulako eta gure haurren irribarreen lekuko izan garelako.

Carlos Sanchez
Juneren Hegoak elkarteko lehendakaria

2025ean

28 FAMILIA ARTATU DIRA

24 ZAHAR
4 BERRI

FAMILIA ZAHARREN LAGUNTZA

10 EKONOMIKOA
14 BESTELAKO LAGUNTZAK

FAMILIA BERRIEN LAGUNTZA

4 BESTELAKO LAGUNTZAK

31 ONURADUN

Adingabeak Guraso

FAMILIAK

12 URTE HAUETAN (2013-2025) GUZTIRA LAGUNDU DITUGU:

75 FAMILIA

80 ADINGABE

147 ONURADUN

JUNEREN HEGOAKI ZENTZUA EMATEN DION ARLOA

2013tik, eogera zailean dauden adingabe eta haien familiei laguntzea da gure lanaren muina. Urte hauetan guztietan, 75 familiak aurkitu dute gure erakundean laguntza, entzute eta esperantza leku bat. Haietako bakoitzaren atzean, 80 adingabe eta 141 pertsona daude, une zailak bakarrik igaro beharrik izan ez dutenak.

2025. urtea ez da salbuespena izan. Aurten, 26 familiak jaso dute gure laguntza: horietatik 23k denbora daramate gure ondoan, eta 3 berri iritsi dira aurten, hainbeste behar zuten babesa bilatuz. Guztira, 28 pertsona izan dira gure ekintzaren onuradun zuzenak, horietatik 26 adingabeak, eta denon artean laguntza materialaren askoz haratago doazen loturak eraikitzen joan gara.

Laguntzak familia bakoitzaren beharren bezain anitzak dira. Horietatik bederatzik laguntza ekonomiko zuzena jaso dute, eta beste hamazazpik beste mota bateko laguntzen bidez aurkitu dute sostengua. Hiru familia berriek ere lehenengo unetik jaso dute laguntza, itxaronaldirik eta distantziarik gabe. Inork ez duelako gaixotasun baten zamari bakarrik aurre egin behar.

Aurten, Donostialdeko OSIarekin lotura duen adostasuna 4 urte gehiagoz berritu dugu, premia duten familien eta adingabeen akonpainamendu lanak egiten jarraitu ahal izateko.

INFORMAZIO GEHIAGO

GURE FAMILIEI BURUZKO ESTATISTIKAK

Urte osoan zehar, egunerokotasunean benetako aldea egiten duten baliabideetara sarbidea erraztu ahal izan dugu:

- UNEA Diziplinarteko Zentroan saioak, non adingabe bakoitzak bere egoerara egokitutako arreta espezializatua jasotzen duen
- Mindaran igeriketa klaseak, ariketa baino askoz gehiago direnak, gozamenezko eta askatasunezko uneak
- Farmazia gastuen estaldura: sendagaiak, pixoihalak, behar dena. Familia bakar batek ere ez dezan aukeratu behar izan beharrezkoa eta posiblearen artean.
- Familia bati ere lagundu diogu Madrilera, La Paz Ospitalera, egindako bidaian, proba edo tratamendu bakar bat ere zailtasun gehiagorekin aurre egin beharrik ez izateko.

Aurten, gainera, Bizitu programan parte hartzeko poza izan dugu familien ondoan. Zinema egokituko saio batean, eta beste saio batean, Algaraklown-en eskutik, dantza, abestiak eta antzerkia egon ziren: bihotzak betetzen dituen eta haurrek betiko gordeko duten mota horretako magia soil hura.

Urtero bezala, Juneren Hegoak Eguna ere ospatu genuen, familia, boluntarioak eta gizartea elkar ezagutzeko, bizitakoa ospatzeko eta guztiok batzen gaituen konpromisoa berritzeko bilgunea. Proiektu hau ez litzateke izango dena eusten duten pertsonen gabe, eta topaketa hori, urteko egunik ederrenetako bat da.

FAMILIAK

JUNEREN HEGOAKI ZENTZUA EMATEN DION ARLOA

75 FAMILIA

2025ERA ARTE LAGUNTZA JASO DUTEN FAMILIEN BANAKETA GEOGRAFIKOA, UDALERRIEN ARABERA



INFORMAZIO GEHIAGO

GURE FAMILIEI BURUZKO ESTATISTIKAK

EKITALDIAK

JUNEREN HEGOAK ERRONKA EGUNA

Nabarmendu beharreko puntuak...

- **BERTARATZE JENDETSUA**
- **HERRIKO ERAGILEEN LANKIDETZARAKO JARRERA BIKAINA**
- **GERTATUTAKO GUZTIAREN SARE SOZIALETAKO ERRETRANSMISIOA**

+ HEDABIDEETAN AGERPENAK

+ EKITALDIKO ARGAZKIAK

Jardueraren aipatzekoak:

- **Goizean,** jaia Gernika plazan hasi zen haurrentzako ekintzekin. Jende ugari bildu zen. Hurbildutako familiek prestatutako ekintzez gozatzeko aukera izan zuten.

- **Arratsaldean,** berriz, magoaz, pailazoaz eta DJ-az gozatzeko aukera izan genuen, eta formatu hori berria izan zen: aurreko edizioetan arratsaldeko jardunaldia lasaiagoa izan ohi zen.

Lankidetza eta partaidetza:

- Herriko eragileen aldetik prestutasun bikaina izan genuen ekitaldian laguntzeko, eta horrek antolaketa erraztu zuen.

- Boluntarioen partaidetza aktiboa funtsezkoa izan zen jardunaldiaren funtzionamendu egokirako.

EKITALDIAK

MUGAK GAINDITUZ

MUGAK GAINDITUZ

2025eko ekainaren 7a, Errenterian

Bi urtean behin ospatzen den auto eta moto erakusketa solidarioa da, Errenterian egiten dena, Juneren Hegoak eta Mowat Wilson elkarteen alde.

Ekitaldiak garai eta estilo desberdinetako 200 bat auto eta moto biltzen ditu, egun osoan zehar udalerriaren erdigunean erakusgai daudenak.

Erakusketarekin batera, haur zein helduentzako ekintza-programa bat ere egiten da, baita kontzertu musikalak eta zozketak arratsaldean zehar ere.

2025eko maiatzaren 24a, Lezon

Berriro ere Kaluren eskutik, ekitaldi solidario bat prestatu genuen Lezon. Oraingoan mugak eta mendiak zeharkatu zituen, eta abentura harrigarri bati ekin zion korrika, larubatean, maiatzaren 24an, Baionatik Lezora.

Ez zen bakarrik erresistentzia fisikoko proba bat izan, ezta guztiok parte hartu eta helburu noble batekin lagundu ahal izan genuen komunitate-jai handi bat ere; helburu baten alde korrika egitea izan zen, esperantzaren eta elkartasunaren alde korrika egitea, ASPANOGIren alde, Gipuzkoako minbizia duten adingabeen familien elkartearen alde, alegia.

Lezora iristean, ekintzak, musikaz, jakiz eta guztientzat prestatutako ezusteko askoz betetako festa ospatu zen, eta bertan bildutako diru-bilketa haur-minbiziaren aurka borrokan ari diren familia horiei zuzendu zitzaien.

+ HEDABIDEETAN AGERPENAK

EKITALDIAK

SAN SILBESTREA,
URTEA ELKARTASUNEZ
AMAITUZ

BESTE URTE BATEZ, "CLUB ATLETICO RENTERIA"REN LAGUNTZA IZAN DUGU

1.300€ BILDU DIRA, ORAIN ARTEKO KOPURU HANDIENA

JUNEREN HEGOAK ELKARTEKO BOLUNTARIOEN TALDETXO BATEK LASTERKETAN PARTE HARTU ZUEN , TXIKIENEI GOXOKIAK BOTATZEN

EKITALDIKO ARGAZKIAK

KOMUNIKAZIOA

2025ko aipagarrienak

- **RICARDO LÓPEZ ALMARAZ DOKTOREA ETA BIOCRUCESEKO BERE TALDEA LANEAN ARI DIRA JADA, JUNE SÁNCHEZ TOLARECHIPI V. BEKARI ESKER.**
- **JUNEREN HEGOAK EGUNA 2025 FAMILIA JAI EGUNA ERRENTERIAN.**

Gainera...

- **28.000 bisita gure WEBGUNERA**
- **7.230 jarraitzaile FACEBOOK-en**
- **1.326 jarraitzaile INSTAGRAMen**
- **586 jarraitzaile X-en (Twitter)**

Juneren Hegoak elkarteak bere lana herritarrekin partekatu behar duela jakitun, area honek elkartearen jarduera ezagutarazteko **estrategia planifikatzen eta garatzen** du. Bere helburu nagusia da **gaixotasunen bat duten adingabeen familien eguneroko bizitzaz gizartea sentsibilizatzea**, eta baita elkarteak eta bere boluntarioek egiten duten ekintza positiboa —beren lan interesgabearekin— jakinaraztea ere.

Juneren Hegoak **barne-komunikazioan** ere arreta jartzen du, **boluntarioei** eta **ekimen partekatuetan** laguntzen duten beste erakundeei ekimenei, elkarlanei, familien kasuei... eta elkartearen bestelako dinamikei buruzko informazioa emanez. Zentzu honetan, azpimarratu nahi dugu Donostia Turismorekin lortutako akordioa, zeinaren bidez gure proiektua zabaldu baita Turismo Bulegoan eta hiriko beste hainbat puntutan.

Juneren Hegoaken jarduera gizarteratzeko bilaketa honetan, **sare sozialak** garrantzitsuak dira, baina bereziki eskertu nahi diegu beren babesa **komunikabideei**, sarritan esan ohi dugun bezala gure proiektuen bozgorailu baitira, publiko zabalago batengana iristen laguntzen baitute eta gure erakundearen eragina komunitatera hurbiltzen baitute.

Komunikazio-area honek, hedapen-lanez gain, elkartean ibilbide luzea duten bi ekintza kudeatzen ditu: **egutegi solidarioa** (2025ean berriro ere mundu osoan zehar bidaiatu genuen #TximeletakMundutik-ekin) eta haurren minbiziarekin lotutako ikerketak laguntzeko **June Sánchez Tolarechipi V. Beka.**

15
HEDABIDEETAN AGERPENAK

ELKARREKIN SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTAKTUAK

2025ko aipagarrienak...

- BIZITU PROGRAMA
- BIZIPOZA IV. JAURDUNALDIA. “HERIOTZAREN PEDAGOGIA. BEGIRADA BERRI BAT BELDURRETIK MAITASUNERA”.
- SENTSIBILIZAZIOA ETA IKERKETA PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA
- HEZKUNTZA KOMUNITATEAREKIN TOPAKETA

9 ENTITATEEKIN LANKIDETZA

8 EKINTZA

Gainera...

- “Jolasean” mahai-ingurua, Kroma eta beste elkarte batzuekin batera
- Errenteria 2040 Plan Estrategikoari buruzko bileran parte hartu genuen, hiriari begira etorkizuneko proiektuetan eragile aktibo gisa.
- Beste entitate batzuekin bilerak
- Katxiporreta Elkartearen omneldira joan ginen, “Maite Zaitut” abestiaren 20. urteurrena ospatzeko.
- Gipuzkoa Basket S.A.Drekin indarrean dagoen hitzarmena 22/23 denboralditik aurrera

ELKARREKIN SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTAKTUAK

JARDUNALDIA “HERIOTZAREN PEDAGOGIA. BEGIRADA BERRI BAT BELDURRETIK MAITASUNERA”

Aurten, Bizipoza Elkartearen IX. Jardunaldiek dolu gaia jorratu zuten, Juneren Hegoak-en errealitatearekin zuzenean lotuta dagoen gaia. Hil Argi Elkartearekin lankidetzan, heriotzaren inguruko hausnarketarako eta elkarrizketarako espazio bat sortu zen, oraindik tabu gisa tratatzen den gai bati beldurretik maitasunera doan ikuspegitik heltzeko. Une esanguratsua, zaila den horretan ere gauza politak egin daitezkeela erakusten duena.

SENTSIBILIZAZIO ETA IKERKETA PROIEKTUAK

2025ean ere Juneren Hegoak-en presentziak unibertsitateko hezkuntzan eta ikerketan jarraitu du. Martxoan, Deustuko Unibertsitateko ikasle talde batek duoluari eta eskolako errealitateari buruzko labur-metraia aurkeztu zuen, gaiaren inguruko kontzientziazio eta hausnarketa lana bultzatuz.

BIZITU PROGRAMA

2017az geroztik, programa hau Elkarrekin arloko ekintza nagusietako bat da.

2025ean egindako saioa:

- **Uztailean:** lehen ekintza, **Zipi eta Zape: Kapitainaren irla** filmaren proiekzioarekin, nerabeen publikoari zuzendua. Niessen auditoriumak ingurune irisgarria eta inklusiboa bermatzeko egokitzapenak egin zituen: argi leuna, soina biguna eta zeinu hizkuntzako itzulpena.

- **Abenduan:** programaren bigarren saioa ospatu zen, **Algaraklown**-en eskutik. Niessen auditoriumean egindako ekitaldiak dantza, musika eta **Saltsa Guztien Perrexilla**ko antzerki eskolako gazteen antzerki txiki bat bat zituen.

Laguntzaileak: Ozzinema, Eskuaire eta Errenteriako Udala.

BOLUNTARIOTZA

Denbora, energia eta bihotzez posible egiten duten pertsonarik gabe existituko ez liratekeen proiektuak daude. Gure erakundeko boluntariotza, zentzu askotan, egiten dugun guztiari bizia ematen dion arima da, eta 2025 haien aztarna ekimen guztietan presente egon den urtea izan da.

- Aurten, hainbat boluntariok lau ospitale-laguntza egin dituzte. Une horietan presente egotea - korridoreetan, itxaronaldietan, dena pixka bat gehiago pisatzen duen egunten- boluntariotzak eskain dezakeen keinurik sakonetako bat da.
- Zorionak Zuri programak aurrera jarraitu du: boluntarioak adingabeen etxera joaten dira haien urtebetetzea haiekin ospatzera. Haur bakoitzak bere eguna garrantzitsua dela sentitzea merezi duelako, eta berarekin ospatzeko prest dagoen norbait dagoela jakitea merezi duelako.
- Gabonak, Capgemini empresaren dohaintzari esker, familiek Olentzero oparia jaso zuten. Mezu indartsua helarazten duen keinu bat: ez daudela bakarrik, eta data berezietan ospakizuna eta poza ere merezi dutela.
- Urtero bezala, talde hua izan da Juneren Hegoak Egunaren ospakizunaren egilea, familiak, boluntarioak eta gizartea elkartzen dituen topaketa, elkar ezagutzeko, eraikitako guztia ospatzeko eta batera aurrera begiratzeko.

Boluntario guztiei,
ESKERRIK ASKO.
Istorio honen funtsezko zatia zarete.

Boluntario kopurua



25 EGONKORRAK

- **5** ZUZENDARITZA BATZORDEAN + ARLOEN KOORDINAZIOA
- KONTRATATUTAKO PERTSONA **2**
- **3** ARLOKO KOORDINATZAILE
- **16** ARLOETAKO LAGUNTZAILE

31 PUNTUALKI ARITZEN DIRENAK

ADMINISTRAZIOA

2024ko MEMORIA EKONOMIKOAREN informazio gehiago gure web gunean

-45.469,25 €

GASTUAK

40.412,42 €

SARRERAK

-5.056,83 €

BALANTZEA

Balantze ekonomikoa

JUNEREN HEGOAK BERE HIRU HELBURU NAGUSIETAN INBERTITUTAKO ZENBATEKOAK

GASTUEN BANAKETA



DIRU-SARREREN BANAKETA



GURE MISIOAREN 3 HELBURUETAN INBERTITUTAKO PORTZENTAIA

1 FAMILIEI LAGUNTZEA ETA ORIENTATZEA

% 62,01

2 HAURREN GAIXOTASUNEN AURKA BORROKATZEA

% 7,16

3 EERREALITATE HAU BIZTANLEEI ORO HAR HURBILTZEA

% 17,95

FUNTZIONAMENDU GASTUAK

% 12,89

ENPRESA ETA PARTIKULARREN DOHAINTZAK

% 58,9

DIRU-LAGUNTZAK

% 9,40

PRODUKTU SOLIDARIOEN SALMENTA

% 23,27

EKITALDIAK EGITEA

% 8,43

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA



+
Ezagutu gure estatistiken datu eta grafiko gehiago

Estatistikak

2013-2025

75 Laguntutako familiak

> 409.000 € Gure familiei zuzendua
2015. URTEAZ GEROZTIKKO ERREGISTROAK

147 Onuradun

7 IKERKETArako finantzatutako proiektuak
17.000 € BIOCRUCES - Haur Minbizia
1.000 € UPV - Sare Sozio Sanitario Hezitzailea

30 Ospitaleko laguntza

12 Urteetako esperientzia

5 ERAKUNDE PUBLIKO GISA AITORTUTAKO URTEAK

9145 Jarraitzale sare sozialetan

282 Agerraldi hedabideetan

108 Egindako ekitaldiak / ekintzak / parte hartzeak

MILA ESKER!

2025EAN ZEHAR LAGUNTZA EMAN DIGUTEN PERTSONAK, ENPRESAK ETA ERAKUNDEAK

- **Donostia Turismoa** | Eskerrik asko Natalia, Carmen, Isabel eta lagundu duten beste pertsona eta enpresei.
- **EXKAL** | Eskerrik asko Miriam eta horren atzean dauden pertsona guztiei.
- **LATZ** | DANOBAT GROUP
- **IPARTRONIC** | Eskerrik asko Roberto eta familiari.
- **DRUNKAT** | Eskerrik asko Josemari.
- **CAR** (Club Atlético Rentería)
- **Arzak Web Technologies** | arzak.org
- **Errenteriako Udala** (Kultura)
- **Gipuzkoako Foru Aldundia**
- **FEPAKO**
- **ApsidE** - Euskadiko Psikopedagogia Elkartea.
- **SVNP** - Euskal-Nafarroako Pediatria Elkartea.
- **Bizipoza Elkartea**
- **CAPGEMINI** | Eskerrik asko Aitor.
- Eskerrik asko Komunikabideei , gure lana, ekintzak eta proiektuak zabalduz laguntzen digutelako.
- **Ozzinema**
- **Eskuaire**
- **UPV/EHU (INKLUNI, Hezkuntza Zientziak, Hezkuntza Fakultatea, Filosofia eta Antropologia)**
- **Kroma**
- **Biba Zuek (EITB)**
- **NOSKI Liburu-denda** | Eskerrik asko Sihara
- **AXULAR LIZEOA**
- **AVALON** | Mila esker Moni.
- **KBL** | Eskerrik asko Kambel.
- **Marpex** Beraun-Errenteria
- **AA.VV. Casas Nuevas - Olibet**
- **Luisma Laboa**
- **Manualidiando**

Gure esker ona adierazi nahi diegu **Teamers** guztiei, hilero 1 €-ko ekarpenarekin gure misioa aurrera eramaten laguntzen digutelako. Zuen eskuzabaltasuna eta konpromisoa funtsezkoak dira egiten dugun lanerako. Era berean, **Juneren Hegoak-en lagun** guztiei, euren diru-ekarpenekin familiei laguntza ematen jarraitzeko laguntzen digutenoi, eskerrak eman nahi dizkiegu.

1 € / hilabeteko laguntza nahi diguzu?